

# IRLANDA BATUA POSIBLE DA

*Parean ditugun erronkak handiak izan arren, Irlanda baturantz garamatzate aste honetan Westminster-en Sinn Féinek hasitako elkarrizketek.*

Irlanda eta Britainiako biztanleek aurrean duten gairik garrantzitsuenak da Irlandaren batasuna lortzea, eta berdintasunean oinarritutako erlazioa eraikitzea Irlanda eta Britainiaren artean.

Krisi ekonomikoak, gogorrak batzuk, joan-etorrian ibiliko dira. Gobernuak joan-etorrian ibiliko dira, baina atzera begiratu nahi genukeena baino luzeago, Britainiak Irlandan izan duen esku-hartzea/esku-sartzea gatazkaren iturri izan da; banaketa, desadostasuna eta zatitzea ekarri ditu; eta bide batez, bi irltako biztanleen artean zauri handia.

Bake prozesuak gatazkaren amaiera ekarri du eta hori benetan txalotzekoa da. Baina gatazkaren sakoneko arrazoiak bere horretan dirau –Britainiako gobernuak Irlandako zati baten jurisdikzioa eskatzen jarraitzen duela–. Irlandarron autodeterminazio, askatasun eta independentzia eskubideen ukazio hau da benetako arazoa, eta azken finean, konpondu behar dena.

Sinn Féinek Westminsterren elkarrizketa hasi du hau lortzeko. Irlanda batu subirano batean demokrazia ordezkatzailerik nazionala desiratzeko, bideragarria eta belaunaldi honetan lor daitekeela sinesten du Sinn Féinek, beti ere, bide demokratiko eta baketsuen bidez.

Arrakastatsu izateko, elkar-lotuta dauden hiru erronka ditugu. Britainiako gobernuak orain arte batasun horri eusteko bultzatu duen politika aldatzetik, Irlandaren batasunaren bultzatzaile izatera pasatzea; Irlandako gobernuak Irlanda batu baterako prestatzen hastea; eta lortu nahi dugun Irlanda horretara Ulstergo unionismoa erakartzea.

Hau guztia lortzeko, helburu bera dugunon artean elkarrekin lan egiteko bideak bilatu behar dira. Posible al da formalki egituratutako fronte zabala eratzea Irlanda batuaren aldeko kanpaina egiteko? Edo hobe al litzateke sakoneko arrazoietan oinarritutako gizarte mugimendu informal, organiko eta popularren alde egitea?

Hasi berri dugun elkarrizketarako kontuak dira horiek. Honezkero zenbait aurrerapauso egin ditugu. Ostiral Santuko Akordioak Irlanda osoko erakunde politikoak eratu zituen, eta hauek beti hobetu eta garatu daitezke. Mekanismo legegile, baketsu eta demokratikoak ditu Irlanda demokratiko bat ezartzeko. Bide honetan aurrera egiteak kanpoan dauden besteengana heltzea esan nahi du, unionista diren horiek barne, eta beraiekin jardutea sortu nahi dugun Irlandari buruz.

Unionistek dituzten kezka eta beldurrak zentzuzko modu batean jorratu behar ditugu. Dena dela, kontu garrantzitsua da Britainiako sistemarekin, unionistak biztanleen %20 baino gutxiago direla; beren kontuetan ere beren hitza kontuan hartua izango denik ezin dute espero. Irlanda berriko %20 izango direnez, unionistek eskubide guztiak izango dituzte, eta bide batez, egiazko politikan indarra eta eragina izango dute.

Beraz, gure ikuspuntutik, Irlanda berri honek elkarbanatutako Irlanda izan behar du, integratutako Irlanda, unionistek jabetza berdintasuna izango duten Irlanda. Irlanda berri honen formak eta egiturak adostutako kontua izan behar du.

New York-en ekainaren hasieran egin zen Irlanda Batuari buruzko konferentzian Brendan O'Leary irakasleak eztabaida honi buruzko bere ekarpena egin zuen. Iradoki zuen errepublikanoek eta nazionalistek eta unionistek eraketa federal baterako aukerak aztertu beharko lituzketela. Beste batzuek ideia eta iradokizun desberdinak izan ditzakete. Izan behar genukeen eztabaidaren parte bat da hori.

Erronka ikaragarri baten aurrean jartzen gaitu guzti honek. Baina sinesten dut aukera honi probetxua atera ahal izango diogula. Hau ez da eztabaida edo fantasiako asmo *naïf* bat, lortu ezin den helburua edo esanahirik gabeko emaitza politikoa. Ez. Britainiarren iragan kolonialeko auzi liskartsuenetako eta handienetako bat konpontzean datza hau. Hau prestatzeko, Sinn Féinek elkarrizketak hasi berri ditu hainbat sektoretako britainiarrekin: sindikalistak, akademikoak, komunitate-lana egiten duten Irlandako taldeak eta beste batzuk, Westminster-ko, Galesko eta Eskoziako legebiltzarkideak barne.

Datorren otsailean hurrengo fasera eramango gaituen bilera nagusia egingo dugu hemen Britainian. Noski, elkarrizketa hauek, solasaldi hauek, hemen Britainia Handian, AEBn edo beste edonongo jendearen artean eginez bere horretan, ez da Irlanda batuan amaituko. Honek Irlandako irlan bizi den jendearen arteko akordioa izan behar du. Baina aldaketa gerta dadin, Britainiak Irlandarekiko duen politika giltza da. Horregatik, Britainiako jendearen babes aktiboa behar dugu.

Iritzi publiko zabalenera heldu behar dugu, sindikatuetara, enpresarien sektorera, komunitate lana egiten dutenengana, klase politikora, eta baita antzeko kolonizazio eta inmigrazio historia bizi izan duten gutxiengo etnikoetara ere.

Arrakastatsu izango garela uste dut. Zergatik? Egin atzera 20 urtez. Orduan nire ahotsa ezin zitekeen entzun Britainiako prentsan –zentsura aplikatzen zen Margaret Thatcher-en kortesiaz–. Denbora tarte horretan debekatutako pertsona nintzen –ezin nuen Londresera bidaiatu–. Estrategia militar eta kriminalizazio politika batean murgildua zegoen Britainia; gataska tinko eta oso biziosoa zen hura.

Londresera etorri izan banintz bake prozesu bat eraikitzeke babes bila, pertsona *naïf* eta ero gisa hartua izango nintzen. Etenaldiak, bake elkarrizketak, nazioarteko akordioa, eta polizia eta armak bezalako kontu zailtan konponbidea aurreikusi izan banu, *the Guardian* eta gainontzekoek gutxiesteaz gain, erotzat hartuko ninduketen.

Beno, bada gertatu da. Batzuentzat imagina ezinezko helburuak ziren horiek lortu ditugu. Beraz, Irlandaren batasuna ere lor daiteke. Estrategia zuzenekin eta konpromiso sendo batekin, Irlanda batua lor daiteke. Batu gurekin hori lortzeko bidean.

*Gerry Adams.*

Artikulu originala: The Guardian  
2009ko ekainaren 15a